

ALDEZ AURREKO KONTSULTA PUBLIKOA, URRIAREN 26KO 94/2016 FORU DEKRETUA, NAFARROAKO GIZARATERATZE ETA LANERATZE ENPRESEN KALIFIKAZIOAREN, ERREGISTROAREN ETA LAGUNTZEN ARAUBIDEA EZARTZEN DUENA, ALDATU AURRETIK.

**A) Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.**

Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren Estatutuek, abenduaren 2ko 263/2015 Foru Dekretuaren bidez onetsiek, ezarri zuten zerbitzuaren egitekoa dela gizarteratze eta laneratze enpresen premiak hautematea eta aztertzea, eta behar diren laguntzak kudeatzea.

Aipatu erakunde autonomoak gizarteratze eta laneratze enpresen kalifikazioaren, erregistroaren eta laguntzen araubidea kudeatzen du, urriaren 26ko 94/2016 Foru Dekretua aplikatuz.

Hura onetsi zenez geroztik igaro den tarte honetan eguneratu beharreko zenbait gai hauteman dira eta, hortaz, egoki da araudia aldatzea.

**B) Onespeneren beharra eta egokitasuna.**

Egungo Foru Dekretuan zenbait aldaketa egin beharra dagoela uste dugu, zertarako eta Dekretua kudeatu zen unean ez bezalako errealitateari egokitzeko araudi hori eta, orobat, gizarteratze eta laneratze enpresa berriak sar daitezen errazteko, enplegu-politika aktiboa eraginkorra izan dadin.

**C) Arauaren helburuak**

Foru Dekretu hau Nafarroako enplegu-politika aktiboen tresnetako bat da eta lanabes baliotsua da lan-merkatuan sartzeko aukera emateko gizarteratzeko eta laneratze bazterketa dakarkien egoeran diren pertsonen.

Horrexegatik egokitu nahi da, egungo gizarteratze eta laneratze enpresei sendotzen laguntzeko eta, era berean, arloko enpresa berriek ere araupean sartzeko aukera izan dezaten, egungo enpresei hazteko eta irauteko modua emanez horrela.

**D) Zer beste konponbide egon litezkeen (arauak edo arau ez direnak)**

Ikusirik kudeaketa urte hauetan guztietan bildutako eskarmentua, uste dugu egoki dela araudia aldatzea egungo premiei erantzun diezaien.